



Lantegiak txertatzea

Peltierren zelulen bitartez elikatutako balbula sektorizatuen berokuntza kudeatzeko sisteman

INGENIERÍA-DISEÑO LATOR S.L. enpresarekin lankidetzan



Lanbide | **Formación**
Heziketa | **Profesional**
NAFARROA | NAVARRA

Ikastetxea

Imarkoingo EBGI

Koordinatzailea

Luis Orús Marca

Irakasleak

Jesús María Usunariz Madoz

Juan José Oróz Ros

Huberto Aguado Urzaiz

Jaime Montilla Larriqueta

Helburua

- Zonaka kontrolatzen den berokuntza sistema bat diseinatzea ikastetxe bateko lantegi eta ikasgeletarako, Peltierren zelulen bitartez elikatzen dena eta Interneteko euskarri bat erabiltzen duena.
- EBGIIko ikasgelen eraikineko berokuntza instalazioan txertatzea, irakasleen eskura baitago, eta ikasgelako jardueran sartzea.
- Esku har daitekeen eraikinetan dagoen zeinahi kontrol sistemarekin integratu ahal izatea.
- Dauden berokuntza instalazioetan energia eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzea.
- Irtenbide mistoa ematea, ikastetxeko lantegietako berokuntzan inplementatzeko.



Ezaugarriak

Berokuntza sistema bat sektoreka banatzeko teknika, erradiadorearen beraren beroa erabiliz sistemako kontrol elementuak elektrizitatez elikatuzko, Peltierren zelulen bitartez.

Instalazioa kontrolatzeko sistema hauze izanen da: irrati bidezko komunikazioa ordenagailu nagusi batekin eta kudeaketa telematikoa web zerbitzari batean.

PROIEKTUAREN ERABILGARRITASUNA

Ikasleentzat:

- Peltier efektua eta haren balizko aplikazioak ezagutzea.
- Irrati bidezko komunikazio protokoloak garatzea.
- Ikasleekin instalazioa egitea, kontrola programatzea eta energia aurrezpena zenbatzea.
- Esku har daitekeen eraikinetan dagoen zeinahi kontrol sistemarekin integratu daiteke.
- Dauden berokuntza instalazioetan energia eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzea.

Ikastetxearentzat:

- Dauden berokuntza instalazioetan energia eraginkortasuna eta aurrezpena hobetzea.
- EBGIIko ikasgelen eraikineko berokuntza instalazioan txertatzea.
- Benetako monitorizazio sistema bat izatea, ikastetxean ematen diren heziketa zikloetan erabiltzeko.

Lortutako produktuak



Ikastetxeko berokuntza instalazioa zonaka banatzeko sistema, ordutegiak eta tenperatura guneen eta erabileren arabera programatzeko aukera izanik. Sistemak jada dagoen instalazio baterako balio du eta Petierren zelulen bitartez elikatzen da, elikadurarako kableak saihestuz, baita komunikaziokoak ere, irradi-maiztasuna erabiltzen baitu.

Web zerbitzari batean instalatutako kudeaketa telematikoko sistema, Interneteko konexioa duen zeinahi puntutatik eta ekipotatik erabiltzeko aukera ematen duena.

